

ADIN GUZTIETAKO EMAKUMEZKOEN EUSKADIKO XAKE TXAPELKETA (2020ko uztailaren 4an, Gasteizen)

Aldabe Herritar Gunean jokatu zen (Gasteiz, Araba), larunbat goiz eta arratsaldean. 25 minutuko partidak izan ziren, bederatzi txandatan. Koronabirusaren aurkako neurriak hartuta jokatu zen txapelketa (maskarak jarrita, adibidez). Horrexegatik, erritmo azkarra erabili zen (egun bakar batean jokatzeke). Estatistikek erritmoko klasiko aurreko txapelketak eta hau batzen dituzte, ordea.

AZKENEKO SAILKAPENA (BEDERATZI TXANDA JOKATU ONDOREN)

- 1) **Ainhoa Ortin Blanco (Nafarroa) (1.971) – 7 puntu.**
- 2) **Leyre Abrisqueta Zudaire (Nafarroa) (2.062) – 7 puntu.**
- 3) **Cecilia Perez Sodupe (Gipuzkoa) (1.827) – 6 puntu.**
- 4) Haizea Tornay (Gipuzkoa) (1.596) – 4 puntu.
- 5) Leire Vega Bilbao (Bizkaia) (1.080) – 3'5 puntu.
- 6) Irene Garcia Bolaños (Bizkaia) (1.485) – 3 puntu.
- 7) Jugatx Larrakoetxea Gorostidi (Bizkaia) (1.727 euskal elokoa) – 2'5 puntu.
- 8) Mencia Montes Gimenez (Bizkaia) (1.725) – 1'5 puntu.
- 9) Ines Abrisqueta Zudaire (Nafarroa) (1.516) – 1'5 puntu.

SARIAK

- 1) **Ainhoa Ortin Blanco (Nafarroa) – 100 euro.**
- 2) **Leyre Abrisqueta Zudaire (Nafarroa) – 60 euro.**
- 3) **Cecilia Perez Sodupe (Gipuzkoa) – 40 euro.**

AINHOA ORTIN NAGUSITU ZITZAIEN LEYRE ABRISQUETA ETA CECILIA PEREZ SODUPERI



Ez da Iran, aro honetako argazkia baizik. Parte hartzaileak, koronabirusaren garaian. Laugarrena, Ainhoa Ortin Blanco, txapelketa; bosgarrena, Leyre Abrisqueta Zudaire, txapelketa; seigarrena, Ines Abrisqueta Zudaire, bederatzigarren sailkatua; zazpigarrena, Cecilia Perez Sodupe, hirugarren sailkatua.

Ainhoa Ortin Blanco tuterarra eta Leyre eta Ines Abrisqueta Zudaire iruindarrak ziren ordezkari nafarrak txapelketa honetan.

Ez zuen bere eguna izan Ines Abrisqueta Zudairek. Bigarren izan zen iaz eta aurten azkena geratu da.

Beste bi nafarrek, ordea, txapelketa menderatu zuten eta lehenengo bi postuetan amaitu zuten, puntuz berdinduta. Ainhoa Ortinek bigarren txandan Leyre Abrisquetari irabazi zionez, titulua berak eskuratu zuen.

Leyre Abrisquetak 15 urte eginen ditu aurten (dagoeneko bete ez baditu), Iruñeko Oberena taldean jokatu du eta une honetan FIDE eloko 91 puntu gehiago ditu Ainhoa Ortinek baino. Honek 19 urte beteko ditu aurten (edo bete ditu), Tuterako Santa Ana taldekoa da eta esperientzia gehiago du.

Ainhoa Ortin tuterarrak oso ongi hasi zuen txapelketa eta lehenengo bost partida irabazi zituen. Tartean, Leyre Abrisqueta eta Cecilia Perez Sodupe gainditu zituen. Txapelketa ongi bideratua zuen. Ustekabean hurrengo partida galdu zuen, Jugatx Larrakoetxea bizkaitarraren aurka. Tentsioa mantendu behar izan zuen bukaeraraino. Mencia Montes eta Haizea Tornay garaituta, adin guztietako emakumeen Euskadiko bere lehenengo titulua lortu zuen.

Leyre Abrisquetak bigarren txandan galdu zuen Ainhoa Ortinen aurka. Alferrik ibili zen gero puntuak pilatzen. Sailkapenean harrapatu zuen baina bere atzetik sailkatu zen. Azken aurreko partida bigarren postua ziurtatu zuen, Cecilia Perez Sodupe irabazita. Honek lehenengo bi sailkatuekin galdu zuen eta hirugarren postuan amaitu zuen.

Azkeneko bi tituluak nafarrek lortu dituzte (Leyre Abrisqueta eta Ainhoa Ortin izan dira azkeneko txapeldunak). Beraz, emakumeen artean ere hasi dira nafarrak nabarmentzen Euskadiko Txapelketetan.

TXAPELKETAREN AZKENEKO HISTORIA

2006. urtean: **Paula Camara Gil** (Araba), garaile.

2007. urtean: **Paula Camara Gil** (Araba), garaile.

2008. urtean: **Isabel Menoyo Alonso** (Bizkaia).

2009. urtean: **Daniela Velte** (Gipuzkoa), garaile.

2010. urtean: **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), garaile.

2011. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), garaile; **Daniela Velte** (Gipuzkoa), bigarren; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), hirugarren.

2012. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), bigarren; **Isabel Menoyo Alonso** (Bizkaia), hirugarren.

2013. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), bigarren; **Lara Fernandez Santamaria** (Bizkaia), hirugarren.

2014. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Daniela Velte** (Gipuzkoa), bigarren; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), hirugarren.

2015. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), bigarren; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), hirugarren.

2016. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Maria Jesus Saez de Jauregui Suso** (Araba), bigarren; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), hirugarren.

2017. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Gisela Gaviria Valencia** (Bizkaia), bigarren; **Maria Jesus Saez de Jauregui Suso** (Araba), hirugarren.

2018. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Haizea Salvatierra Alzorritz** (Nafarroa), bigarren; **Irene Garcia Bolaños** (Bizkaia), hirugarren.

2019. urtean: **Leyre Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), garaile; **Ines Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), bigarren; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), hirugarren.

2020. urtean: **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), garaile; **Leyre Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), bigarren; **Cecilia Perez Sodupe** (Gipuzkoa), hirugarren.

PALMARESA, 2006. URTETIK

- 1) **Ainhoa Barrio Ugidos (Bizkaia) – 3 titulu.**
- 2) **Eihartze Buiza Prieto (Bizkaia) – 3 titulu.**
- 3) **Paula Camara Gil (Araba) – 2 titulu.**
- 4) **Angels Cucarella Montell (Bizkaia) – 2 titulu.**
- 5) **Leyre Abrisqueta Zudaire (Nafarroa) – Titulu bat.**

- 6) Oihana Gonzalez Etayo (Nafarroa) – Titulu bat.
- 7) Isabel Menoyo Alonso (Bizkaia) – Titulu bat.
- 8) Ainhoa Ortin Blanco (Nafarroa) – Titulu bat.
- 9) Daniela Velte (Gipuzkoa) – Titulu bat.

JOKALARI NAFARRAK TXAPELKETA HONETAN

2010. urtean: **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), txapeldun.

2011. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), txapeldun; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), seigarren.

2012. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), txapeldun; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), laugarren.

2013. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), txapeldun; **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), bigarren.

2014. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), txapeldun; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), hirugarren.

2015. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), txapeldun; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), hirugarren.

2016. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), hirugarren.

2017. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), bosgarren.

2018. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Haizea Salvatierra Alzorritz** (Nafarroa), bigarren.

2019. urtean: **Leyre Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), garaile; **Ines Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), bigarren.

2020. urtean: **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), garaile; **Leyre Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), bigarren; **Ines Abrisqueta Zudaire** (Nafarroa), bederatzigarren.

2020-07-04.

Iturria: “<https://info64.org/campeonato-de-euskadi-femenino/standings>”
webgunea.